

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

21/2021 Foru Araua, irailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena berresteko foru arauaren proiektua, FEAGA eta LGENF funtsen kontura finantzatzeko zuzeneko laguntzen eta landa garapenerako neurrien kudeaketari eta ordaintzari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko uztailearen 16an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

21/2021 Foru Araua, irailaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena berresteko foru arauaren proiektua, FEAGA eta LGENF funtsen kontura finantzatzeko zuzeneko laguntzen eta landa garapenerako neurrien kudeaketari eta ordaintzari buruzkoa.

Nekazaritza Politika Bateratuaren Finantzaketari, Kudeaketari eta Jarraipenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduak, zeinaren bidez indargabetu baitziren Batzordearen 352/78 (EE), 165/94 (EE), 2799/98 (EE), 814/200 (EE), 1290/2005 (EE) eta 485/2008 (EE) erregelamenduak, Nekazaritza Politika Bateratua finantzatzeko oinarriak ezartzen ditu, FEAGA eta FEADER Europako Funtsen kargura.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamenduak aukera ematen du estatu kide berean erakunde ordaintzaile bat baino gehiago egoteko, eta, aldi berean, erakunde ordaintzaile horien egitura eta funtzionamendua garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua osatzen baitu, erakunde ordaintzaileek dagozkien funtzioak bete ahal izateko bete behar dituzten egitura, funtzionamendua eta baldintzak ezartzen ditu.

Eusko Jaurilaritzaren urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren bidez, "Euskal Autonomia Erki-degoko Erakunde Ordaintzailea" eratu zen, eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezarri zen. Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila da Euskal Autonomia Erki-degoko Erakunde Ordaintzailea. Ondoren, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuak ezartzen ditu Nekazaritza Bermerako Europako Nekazaritza Funtsak (FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) Euskal Autonomia Erkidegoan finantzatu dituzten gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolamendua eta funtzionamendua araubidea.

Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan jasotzen denez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru organoek, eurek kudeatzen dituzten landa garapenerako laguntzei dagokienez, nekazariei eta abeltzainei informazioa eta aholkularitza emateko jarduerak egingo dituzte, eskaerak jaso eta administrazio eta landa kontrolak egingo dituzte, eta jarduera horiek, dagokion lankidetzaz hitzarmenaren bidez artikulatuko dira, bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duen Batzordearen martxoaren 11ko 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak erakunde ordaintzaileei eta beste erakunde batzuei buruz eta finantza kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilari buruz xedatutakoarekin.

Arabako Foru Aldundiak likidazio bulego ofizial gisa jardungo du, 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskineko 2. B puntuaren arabera, eta onuradunei emandako laguntzen zenbatekoak sartuko ditu, 275/2020 Dekretuaren 13.2 artikulua arabera.

Kontuan hartu da Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 69 artikuluan xedatutakoa.

ARTIKULU BAKARRA

Berrestea lankidetzaz hitzarmena, honekin batera dauden klausulen arabera, Eusko Jaur-laritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren, hura baita Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea, eta Arabako Foru Aldundiaren artean, FEAGA eta LGENF funtsen kontura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa garapenerako neurrien kudeaketari eta ordaintzari loturiko jardueren eskuordetzeari buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 22a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ERAKUNDE ORDAINTZAILEAREN ETA
ARABKOKO FORU ALDUNDIAREN
ARTEKOA, NEBF ETA LGNF
EUROPAKO FUNTSEN KARGURA
FINANTZATUTAKO LANDA-
GARAPENERAKO ZUZENEKO
LAGUNTZEN ETA NEURRIEN
KUDEAKETARI LOTURIKO
JARDUKETAK ESKUORDETZEARI
BURUZKOA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
EL ORGANISMO PAGADOR DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS
VASCO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE
ALAVA RELATIVO A LA DELEGACIÓN
DE ACTIVIDADES EN RELACIÓN CON LA
GESTIÓN DE LAS AYUDAS DIRECTAS Y
MEDIDAS DEL DESARROLLO RURAL
FINANCIADAS CON CARGO A LOS
FONDOS EUROPEOS FEAGA Y FEADER.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko XXXXXXXXaren
XX(a).

En Vitoria-Gasteiz, a xx de xxxxxx de 2021.

HAUEK BILDU DIRA

REUNIDOS

Batetik, Eduardo Aguinaco López de Suso
jauna, Arabako Foru Aldundiko Nekazartizako
ahalduna.

Por una parte el/la Ilmo. Sr/. D. Eduardo
Aguinaco López de Suso Diputado de
Agricultura de la Diputación Foral de Álava.

Eta bestetik, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
jauna/andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX(e)ko
sailburua.

Y de otra el/la Excmo. Sra.
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX, Consejera de
Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio
Ambiente de la Comunidad Autónoma del País
Vasco.

BERTARATU DIRA

COMPARECEN

Lehen Arabako Foru Aldundiaren izenean eta
hura ordezkatur.

El/La primero/a en nombre y representación de
la Diputación Foral de Álava.

Bigarrena Euskal Autonomia Erkidegoko
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
Sailaren izenean eta hura ordezkatur.

El/La segundo/a en nombre y representación del
Departamento de Desarrollo Económico,
Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno
de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Lehenengoa.– Nekazaritza-politika bateratua NEBF eta LGENF izeneko Europako funtsen kargura finantzatzeko oinarriak ezartzen ditu Nekazaritza Politika Erkidea finantzatu, kudeatu eta hari jarraipena egiteko den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduak, zeinak 352/78 (EE), 165/94 (EE), 2799/98 (EE), 814/2000 (EE), 1290/2005 (EE) eta 485/2008 (EE) erregelamenduak, Kontseiluarenak, indargabetzen dituen.

Bigarrena.– 1306/2013 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, aukera ematen du Europako kide den estatu bakoitzean erakunde ordaintzaile bat baino gehiago eratzeko, eta horrekin batera xedatzen ditu erakunde ordaintzaile horien egiturak eta funtzionamenduak jarraitu beharreko oinarriak.

Hirugarrena.– 1306/2013 (EB) Erregelamenduak, Batzordearenak, osatzen du 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko martxoaren 11koa, zeinak ezartzen baitu zer egitura, funtzionamendu eta baldintza izan behar dituzten erakunde ordaintzaileek, berezkoak dituzten eginkizunak zuzen bete ditzaten.

Laugarrena.– Urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratu zen, eta haren egitura eta funtzionamendua ezarri; hortaz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailea. Geroago, 275/2020 Dekretuak, abenduaren 9koak, Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bosgarrena.– 1305/2013 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2013ko abenduaren 17koak, zehazten ditu, besteak beste, landa-garapenerako helburuak, lehentasunak eta

Primero.– Que el Reglamento (UE) n°1306/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, sobre la financiación, gestión y seguimiento de la Política Agrícola Común, por el que se derogan los Reglamentos (CE) n° 352/78, (CE) n° 165/94, (CE) n° 2799/98, (CE) n° 814/2000, (CE) n° 1290/2005 y (CE) n° 485/2008 del Consejo, establece las bases de la financiación de la política agrícola común con cargo a los Fondos europeos FEAGA y FEADER.

Segundo.– Que el Reglamento (UE) n° 1306/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo permite la existencia, en un mismo Estado miembro, de más de un Organismo Pagador, disponiendo al mismo tiempo las bases conforme a las que deben de desarrollarse la estructura y el funcionamiento de dichos organismos pagadores.

Tercero.– Que es el Reglamento Delegado (UE) n° 907/2014 de la Comisión, de 11 de marzo de 2014, que completa el Reglamento (UE) n° 1306/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo el que establece la estructura, el funcionamiento y condiciones que deben cumplir los organismos pagadores para poder ejercitar correctamente las funciones que le son propias.

Cuarto.– Que por Decreto 194/2006, de 3 de octubre, se constituyó el "Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco" y se establece su organización y funcionamiento; siendo el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Posteriormente el Decreto 275/2020, de 9 de diciembre, establece la organización y régimen de funcionamiento del Organismo Pagador de los gastos financiados por el Fondo Europeo Agrícola de Garantía (FEAGA) y por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Quinto.– Que el Reglamento (UE) n° 1305/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, define, entre otros, los objetivos, prioridades y las medidas de desarrollo rural, estableciendo, así mismo, las normas generales que regulan la ayuda



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

neurriak, eta, horrekin batera, landa-garapenerako LGENFK finantzaturako Europar Batasuneko laguntza arautzen duten arau orokorrak ezartzen ditu.

Seigarrena.—1306/2013 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, xedatzen duenaren arabera, erakunde ordaintzailearen egitekoetatik zenbait eskuordetu daitezke. Hitzarmen honen xedea da XXXXXXko Foru Aldundiari eskuordetuko zaizkion egitekoak zehaztea, eta horiek egiteko baldintzak ezartzea, 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren 1. puntuko C letrarekin bat.

Zazpigarrena.— 2021ko irailaren 7an, Aldundiaren Ahalduen Kontseiluak hitzarmen honen testua onartzeko erabakia hartu du.

Zortzigarrena.—

.....(e)(a)n,
hitzarmenaren proiektua Eusko Legebiltzarrera igorri zen, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.a) artikuluan ezarritako komunikazioaren ondorioetarako.

comunitaria al desarrollo rural, financiada por el FEADER.

Sexto.— Que el Reglamento 1306/2013 del Parlamento Europeo y el Consejo, prevé que determinadas tareas del Organismo Pagador puedan ser objeto de delegación. El objeto del presente convenio es establecer las tareas que van a ser delegadas en la Diputación Foral de XXXXXX y las condiciones en que han de desarrollarse las mismas, de conformidad con el Anexo I, punto 1, letra C del Reglamento Delegado (UE) 907/2014

Séptimo.— Que con fecha 7 de septiembre de 2021 el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava ha adoptado Acuerdo aprobando el texto del presente Convenio.

Octavo.— Que con fecha se dio traslado del proyecto de Convenio al Parlamento Vasco, a los efectos de la comunicación prevista en el artículo 18.a) de la Ley 7/1981, de 30 de junio del Gobierno del País Vasco.

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Hitzarmen honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen eta Arabako Foru Aldundiaren artean egon behar den lankidetzaren ezartzea, NEBF eta LGENF Europako funtsen kargura finantzaturiko landa-garapenerako zuzeneko laguntzei eta neurriei loturik, aipatu foru-aldundiak administrazio-kontrolen eskabideak jasotzeko eta kontrol horiek bertatik bertara egiteko jarduketak eskuordetzeari dagokionez, Batzordearenaren 2014ko martxoaren 11ko 907/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren 1. puntuko C letrarekin bat, baita 275/2020 Dekretuan, abenduaren 9koan, EAEn Nekazaritzako Europako Berme Funttsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsak (LGENF) finantzaturako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzeari buruzkoan, xedatua betez ere, hala nola, 1306/2013 Erregelamenduak (EB), Europako Parlamentuaren eta

CLÁUSULAS

Primera.— Es objeto del presente Convenio establecer la colaboración que debe existir entre el Organismo Pagador de la CAPV y la Diputación Foral de Álava, en relación con el ejercicio por esta última de la delegación de las actividades de recepción de solicitudes y ejecución de controles administrativos y sobre el terreno en relación con las ayudas directas y medidas de desarrollo rural financiadas con cargo a los fondos europeos FEAGA y FEADER, de conformidad con el Anexo I, punto 1, letra C del Reglamento Delegado (UE) 907/2014 de la comisión, de 11 de marzo de 2014, conforme lo dispuesto en el Decreto 275/2020, de 9 de diciembre, que establece la organización y régimen de funcionamiento del Organismo Pagador de los gastos financiados por el Fondo Europeo Agrícola de Garantía (FEAGA) y por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), en la Comunidad Autónoma del País Vasco y dentro del ámbito y en cumplimiento de lo regulado en el Reglamento (UE) nº 1306/2013



Kontseiluarenak, eta 907/2014 Erregelamendu Delegatuak, Batzordearenak, arautua.

Bigarrena.– NEBF laguntzak.

1.- Laguntzak:

Klausula honetan sartutako laguntzak dira NPBren esparruan nekazariei emandako zuzeneko laguntzak.

2.- Jarduketa hauek eskuordetu ahalko dira:

- Eskabideak jasotzea.
- Administrazio-kontrolak eta bertatik bertarakoak egitea.
- Bere eskumenen esparruan, baldintzapekotasan-kontrolak egitea bertatik bertara.
- Nekazariei informazioa eta aholkua ematea.

Jarduketa eskuordetuak egiteko, indarreko araudia eta erakunde ordaintzailearen jarraibideak bete beharko dira.

3.- Prozedura-eskuliburuak:

Jarduketa horiek guztiak erakunde ordaintzaileak ezarritako prozedura-eskuliburuekin bat egin beharko dira, erakunde hori baita Europako nekazaritza-funtsen kudeaketa eraginkorraren arduraduna. Gainera, Arabako Foru Aldundiak parte hartuko du eskuliburuok egiten eta eguneratzen.

4.- Jarduketa eskuordetuak amaitzearen jakinarazpena.

Erakunde ordaintzaileak ordainketa bat egingo dela adierazten duenean, Arabako Foru Aldundiak jakinaraziko du zer betetze-egoeratan dauden egin diren jarduketak. Jakinarazpen horretaz gain, Arabako Foru Aldundiak txosten tekniko bat aurkeztuko du, eta bertan zehaztuko ditu espediente bakoitzari buruz egindako kontrolak eta egiaztapenak, eta hautemandako intzidentziak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

del Parlamento Europeo y del Consejo y en el Reglamento Delegado (UE) nº 907/2014 de la Comisión.

Segunda.– Ayudas FEAGA.

1.- Ayudas:

Las ayudas incluidas en la presente cláusula son las ayudas directas a los agricultores en el marco de la PAC.

2.- Son objeto de delegación las siguientes actividades:

- Recepción de solicitudes.
- Realización de controles administrativos y sobre el terreno.
- Realización de los controles sobre el terreno de condicionalidad en el ámbito de sus competencias.
- Información y asesoramiento a personas agricultoras.

La ejecución de las actividades delegadas se realizará de acuerdo con la normativa vigente y las instrucciones del Organismo Pagador.

3.- Manuales de Procedimiento:

Todas estas actividades serán desarrolladas conforme a los Manuales de Procedimiento que establezca el Organismo Pagador, en tanto que es el responsable de la gestión eficaz de los Fondos Europeos Agrícolas, y en cuya elaboración y actualización participará la Diputación Foral de Álava.

4.- Comunicación de la finalización de las actividades delegadas.

Cuando el Organismo Pagador informe de que se va a proceder a un pago, la Diputación Foral de Álava comunicará el estado de ejecución de las actividades realizadas. Junto con esta comunicación, la Diputación Foral de Álava, presentará un informe técnico en el que se detallarán los controles y verificaciones realizados sobre cada uno de los expedientes y las incidencias constatadas.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

5.- Likidazio-bulego ofiziala: 907/2014 (EB)
Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskineko
2.B puntuaren arabera.

Arabako Foru Aldundia izango da erakunde ordaintzailearen likidazio-bulego ofiziala, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuaren 13.2 artikularekin bat. Prozedura-eskuliburu berariazko bat ezarriko du erakunde ordaintzaileak, Arabakoko Foru Aldundiak egiten eta eguneratzen lagunduta, eta bertan ezarriko da zer prozedurari jarraitu beharko dion foru-aldundiak onuradunei ordaintzeko.

6.- Ikuskapena:

A.- Erakunde ordaintzaileak jarduketa eskuordetuak betetzen diren ikuskatuko du etengabe, erakunde ordaintzaileak berak ezarriko duen laguntza-kudeaketako aplikazio komuneko informazioa erabiliz, edo horretarako duen beste bitarteko baten bidez.

B.- Halaber, erakunde ordaintzaileak kontrolatuko ditu jarduketa eskuordetuak, laguntza-lerro bakoitzeko espedienteen lagin adierazgarri bat hartuta.

C.- Erakunde ordaintzaileak Arabako Foru Aldundiak bertatik bertara egindako kontrolen kalitate-ebaluazioak egingo ditu

D.- Erakunde ordaintzaileak behar diren neurriak hartuko ditu Arabako Foru Aldundiak Europako araudian eskatzen diren kontrol-ehunekoak betetzen dituela bermatzeko.

Hirugarrena.– LGENF laguntzak.

1.- Laguntzak:

Klausula honetan sartzten diren laguntzak Arabako Foru Aldundiaren eta LGENFren artean batera finantzatutako neurriak dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Landa

5.- Oficina Liquidadora Oficial: conforme al Punto 2.B del Anexo I del Reglamento Delegado (UE) 907/2014.

La Diputación Foral de Álava actuará como Oficina Liquidadora Oficial del Organismo Pagador, de acuerdo con el artículo 13.2 del Decreto 275/2020, de 9 de diciembre. Mediante un Manual de Procedimiento específico, establecido por el Organismo Pagador, en cuya elaboración y actualización participará la Diputación Foral de Álava, se establecerá todo el proceso para que la Diputación Foral lleve a cabo el pago a los beneficiarios.

6.- Supervisión:

A.- La ejecución de las actividades delegadas será objeto de una supervisión continua por el Organismo Pagador a través de la información que figure en la aplicación común que para la gestión de las ayudas establezca el Organismo Pagador o mediante cualquier otro medio que disponga al efecto.

B.- Así mismo, las actividades delegadas serán controladas por el Organismo Pagador mediante la selección de una muestra representativa de expedientes por cada una de las diferentes líneas de ayudas.

C.- El Organismo Pagador realizará evaluaciones de la calidad de los controles sobre el terreno llevados a cabo por la Diputación Foral de Álava.

D.- El Organismo Pagador colaborará con las medidas necesarias para garantizar que la Diputación Foral de Álava cumpla los porcentajes de control exigidos por la normativa europea.

Tercera.– Ayudas FEADER.

1.- Ayudas:

Las ayudas que se incluyen en la presente cláusula son las medidas cofinanciadas entre la Diputación Foral de Álava y el FEADER, recogidas en el Programa de Desarrollo Rural



Garapeneko Programan jasota daude, eta aipatu foru-aldundiak kudeatzen ditu.

2.- Jarduketa hauek eskuordetu ahalko dira:

- Eskabideak jasotzea.
- Administrazio-kontrolak eta bertatik bertarakoak egitea.
- Bere eskumenen esparruan, baldintzapekotasun-kontrolak egitea bertatik bertara.
- Nekazariei informazioa eta aholkua ematea.

Jarduketa eskuordetuak egiteko, indarreko araudia eta erakunde ordaintzailearen jarraibideak bete beharko dira.

3.- Ordainketa.

Foru-organismoak ebazpen bakarraren bidez ebatziko ditu foru-aldundiak finantzatutako zatia eta LGENFk finantzatutakoa, eta laguntzen balizko onuradunei dagokien zenbateko osoa ordainduko die, bai foru-aldundiak finantzatutako zatia, bai LGENFk finantzatutakoa.

4.- Ikuskapena:

A.- Banakako onuradunei ordainketa egin eta gero, erakunde ordaintzaileari hauek bidaliko dizkio Arabako Foru Aldundiak: itzulketa-proposamena, egindako kontrolei eta ikuskapenei buruzko txostena; egindako ordainketen zerrenda informatizatua, eta, onuradun bakoitzari ordaindutakoaren kontu-laburpenen zerrenda edo egindako ordainketen ziurtagiria.

B.- Halaber, erakunde ordaintzaileak kontrolatuko ditu jarduketa eskuordetuak, laguntza-lerro bakoitzeko espedienteen lagin adierazgarri bat hartuta.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

del País Vasco, y que son gestionadas por la citada Diputación Foral.

2.- Son objeto de delegación las siguientes actividades:

- Recepción de solicitudes.
- Realización de controles administrativos y sobre el terreno.
- Realización de los controles sobre el terreno de condicionalidad en el ámbito de sus competencias.
- Información y asesoramiento a personas agricultoras.

La ejecución de las actividades delegadas se realizará de acuerdo con la normativa vigente y las instrucciones del Organismo Pagador.

3.- Pago.

El Órgano Foral resolverá mediante una única Resolución tanto la parte financiada por la Diputación Foral como la parte financiada por el FEADER, y abonará la cuantía total correspondiente a las potenciales personas beneficiarias de las ayudas, tanto la parte financiada por la Diputación Foral como la parte financiada por el FEADER.

4.- Supervisión:

A.- Una vez efectuado el pago a las personas beneficiarias individuales, la Diputación Foral de Álava enviará al Organismo Pagador una propuesta de reembolso y un informe sobre los controles e inspecciones realizadas, así como un listado informatizado de los pagos realizados y un listado con los extractos que reflejen los pagos efectuados a cada persona beneficiaria o certificación de los pagos efectuados.

B.- Así mismo, las actividades delegadas serán controladas por el Organismo Pagador mediante la selección de una muestra representativa de expedientes por cada una de las diferentes líneas de ayudas.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

C.- Erakunde ordaintzaileak Arabako Foru Aldundiak bertatik bertara egindako kontrolen kalitate-ebaluazioak egingo ditu.

5.- Funtsak bidaltzea.

Erakunde ordaintzaileak, kontrolak egin direla eta ordainketa zuzen egin dela egiaztatu eta gero, Europako araudiaren arabera, ordainketa betearazteko ebazpena emango du Arabako Foru Aldundiaren alde. Erakunde ordaintzaileak funtsak ez itzultzeko aukera beretzat gordeko du, Arabako Foru Aldundiak egindako ordainketak Europar Batasunak ezarritako elementu beharrezko guztiak ez dituela egiaztatzen badu.

6.- Ordainketa bidegabeak berreskuratzea.

A.- Arabako Foru Aldundiari dagokio ordainketa bidegabeen zenbatekoak erreklamatzeari, aplikagarria den arautegiaren arabera.

Kasu horietan, ordainketa bidegabeengatik itzulketa-eskaerak izapidetzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari jakinarazi beharko zaio LGENFri dagokion zenbatekoa, zordunen kontabilitatean sartzeko.

B.- Behin LGENFri legezkiokkeen zenbatekoa eta, halakorik balego, interesak berreskuratuta, zenbateko hori sartuko da erakunde ordaintzailearen kontuan.

C.- Era berean, Arabako Foru Aldundiak erakunde ordaintzaileari jakinaraziko dizkio antzematen diren ustezko irregularitasunak, 2015/1971 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren arabera nahitaezkoa den jakinarazpena egin ahal izateko, kasuan kasuko berreskurapen edo zigorren espedienteak irekitzen diren unetik beretik.

C.- El Organismo Pagador realizará evaluaciones de la calidad de los controles sobre el terreno llevados a cabo por la Diputación Foral de Álava.

5.- Remisión de fondos.

El Organismo Pagador, una vez comprobado que los controles han sido efectuados y que el pago ha sido realizado correctamente, conforme a la normativa europea, emitirá una Resolución de ejecución de pago a favor de la Diputación Foral de Álava. El Organismo Pagador, en el caso de que compruebe que el pago realizado por la Diputación Foral de Álava no cuenta con todos los elementos necesarios establecidos por la Unión Europea, se reserva la posibilidad de no reembolsarle los fondos.

6.- Recuperación de pagos indebidos.

A.- Corresponde a la Diputación Foral de Álava, la reclamación de los importes indebidamente pagados, conforme a la normativa que sea de aplicación.

En estos casos, cuando se tramiten solicitudes de reintegro procedentes de pagos indebidos, será preciso su comunicación al Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco por el importe que corresponda al FEADER, a efectos de su incorporación a la contabilidad de deudores.

B.- Una vez recuperado el importe, más los intereses si los hubiera, que pudiesen corresponder al FEADER, se procederá a su ingreso en la cuenta del Organismo Pagador.

C.- Igualmente, la Diputación Foral de Álava informará al Organismo Pagador de cualquier caso de presunta irregularidad que se detecte a fin de poder hacer posible la comunicación preceptiva de acuerdo con el Reglamento Delegado (UE) 2015/1971, desde el mismo momento de la incoación de los expedientes de recuperación o sanciones oportunos.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

7.- Hirugarren klausulan jasotako jarduketa guztiak, gastuaren kudeaketari eta kontrolari lotuak, erakunde ordaintzaileak ezarritako prozedura-eskuliburuaren arabera egingo dira. Landa Garapeneko Programa kudeatzen duen agintaritzak egingo ditu programan jasotako neurri eta azpineurri bakoitza kudeatu eta aplikatzeko prozedura-eskuliburuak. Arabako Foru Aldundiak prozedura-eskuliburuaren idazketan eta eguneratzean parte hartuko du.

Laugarrena.– Koordinazioa: Arabako Foru Aldundiak teknikari bana izendatuko du LGENF eta NEBF funtsetan. Zerbitziburuaren kargua izango dute, eta haiek bermatuko dute erakunde ordaintzailea eta foru-aldundiko zerbitzuak koordinatuta dihardutela, laguntzak kudeatzeari eta jarduketa eskuordetuak zuzen egiteari dagokionez.

Bosgarrena.– Eskatu dion informazioa bidaliko dio Arabako Foru Aldundiak erakunde ordaintzaileari, erakundeak berak finkaturiko data eta epeetan, Europar Batasunaren eskakizunak bete daitezzen.

Seigarrena.– Erakunde ordaintzaileak Arabako Foru Aldundiari behar den aurrerapenez bidaliko dio Hitzarmeneko jarduerak zuzen planifikatzeko eta kudeatzeko behar den informazioa, bai eta hura interpretatzeko irizpide homogeeoak ere.

Zazpigarrena.– Unitate kudeatzaileek informazio-sistemen segurtasun-prozedurak egokituko dituzte ISO/IEC 27002 Arauaren edo Europako Batzordeak baimen dezakeen beste edozein arauaren eta Erakunde Ordaintzailearen Informazioaren Segurtasun Politikaren arabera.

7.- Todas las actividades recogidas en esta cláusula tercera, relativas a la gestión y control del gasto, serán desarrolladas conforme a los Manuales de Procedimiento que establezca el Organismo Pagador. La autoridad de gestión del Programa de Desarrollo Rural, elaborará los Manuales de Procedimiento relativos a la gestión y aplicación de cada medida y submedida del Programa. En la elaboración y actualización de los Manuales de Procedimiento participará la Diputación Foral de Álava.

Cuarta.– Coordinación: la Diputación Foral de Álava designará, por cada uno de los fondos FEAGA y FEADER, a una persona técnica, con rango de Jefe Servicio, que será quien garantice la coordinación entre el Organismo Pagador y los diferentes Servicios de la Diputación Foral relacionados con la gestión de las diferentes ayudas y la correcta ejecución de las actividades delegadas.

Quinta.– La Diputación Foral de Álava enviara la información que le requiera el Organismo Pagador en las fechas y plazos establecidos por el mismo, de manera que se cumplan los requisitos definidos por la Unión Europea.

Sexta.– El Organismo Pagador remitirá a la Diputación Foral de Álava, con antelación suficiente, la información necesaria para la correcta planificación y gestión de las actividades del Convenio, así como criterios de interpretación homogeeos sobre ello.

Séptima.– Las unidades gestoras adaptarán sus procedimientos de seguridad de los sistemas de información a la Norma ISO/IEC 27002 o en cualquier otra norma que pueda autorizar la Comisión Europea, y a la Política de Seguridad de la Información del Organismo Pagador.



Zortzigarrena.– Arabako Foru Aldundiak bermatuko du erakunde ordaintzaileak laguntzak kudeatzeko ezarriko duen datu-baseetako informazioa beti eguneratua egotea, eta laguntzak behar bezala kudeatzeko behar diren datu guztiak eman beharko ditu. Erakunde ordaintzaileak bermatuko du informazioa jasotzeko eta tratatzeko euskarri informatikoak une bakoitzean indarrean diren arauetara eta betekizunetara egokituta eta eguneratuta egotea.

Bederatzigarrena.– Lankidetzaz hitzarmen honen garapenean, alderdiek honako arau hauetan jasotako segurtasun-neurriak aplikatuko dituzte: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, SEN-Segurtasun Eskema Nazionalekoa eta haren aldaketetan ezarritakoa; eta hitzarmen honen indarraldian, aplikatu beharreko datu pertsonalak babesteko beste edozein arau.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute informazioaren segurtasun- eta konfidentzialtasun-politika betetzeko eta administrazioek ezarritako egiaztapen-sistemei men egiteko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko estatuko edo autonomia-erkidegoko legeriaren arabera.

Hamargarrena.– Europar Batasunak erakunde ordaintzaileari Hitzarmen honetan jasotako jarduketak ez gauzatzearen edo oker gauzatzearen ondoriozko zuzenketa finantzarioak ezartzen badizkio, tartean dauden administrazioei egotziko zaizkie zuzenketa finantzario horiek, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan eta hura garatzeko araudian zehaztutakoarekin bat.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Octava.– La Diputación Foral de Álava garantizará que la información de las bases de datos que establezca el Organismo Pagador para la gestión de las ayudas esté permanentemente actualizada, debiendo aportar todos los datos necesarios para la correcta gestión de las diferentes ayudas. El Organismo Pagador garantizará que los soportes informáticos de recogida y tratamiento de la información estén adaptados y actualizados a la normativa y requisitos vigentes en cada momento.

Novena.– En el desarrollo del presente convenio de colaboración las partes adoptarán las medidas de seguridad requeridas por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; por la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos; así como lo indicado en el Esquema Nacional de Seguridad (ENS) establecido en el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, y sus modificaciones; así como, aquella otra normativa reguladora de la protección de datos de carácter personal que sea de aplicación durante su vigencia.

Las partes se comprometen a cumplir la política de seguridad y confidencialidad de la información y a someterse a los sistemas de verificación establecidos por las respectivas Administraciones, de acuerdo con la legislación estatal o autonómica que resulte aplicable en cada caso.

Décima.– En el supuesto que la Unión Europea imponga al Organismo Pagador correcciones financieras derivadas del incumplimiento o cumplimiento erróneo en la ejecución las actuaciones recogidas en el presente Convenio, las correcciones financieras se atribuirán entre las Administraciones implicadas, de conformidad con lo establecido en el Decreto 275/2020 de 9 de diciembre, y su normativa de desarrollo.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Hamaikagarrena.– Gutxienez, urtean behin elkartuko dira gaien eskumena duten erakunde ordaintzaileen zuzendaria eta foru-aldundien zuzendariak, Hitzarmen hau modu zuzen eta eraginkorrean beteko dela ziurtatzeko.

Hamabigarrena.– Arabako Foru Aldundiak, urtero, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran, erakunde ordaintzaileari berretsiko dio eskuordetuta dituen jarduerak betetzen dituela, eta aurreko aurrekontu-ekitaldian egindakoei buruzko txosten bat igorriko du. Txostenean jasoko du, gainera, antolamendu-egitura zein den eta horretarako zer giza baliabide eta baliabide material erabili diren.

Hamahirugarrena.– Erakunde ordaintzaileak, aldizka, eskuordetutako jarduerak aztertuko ditu, eskuordetutako lana behar bezala eta Europar Batasunaren araudiari jarraikiz egiten dela ziurtatzeko.

Hamalauugarrena.–

1.- Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik hasita. Epea amaitu aurretik, edozein momentutan, alde sinatzaileek erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edota hura azkentzea.

2.- Alde sinatzaileek, idatziz, hitzarmena azkendu ahalko dute, hilabeteko aurrerapenez gutxienez.

3.- Hitzarmen hau indarrean jartzen denean, indarrik gabe geldituko da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzahitzarmena, 2007ko urtarrilaren 10ean sinatu zena eta NEBF eta LGENF funtsen kargura finantzatutako landa-garapenerako laguntza zuzenen eta neurrien kudeaketari eta ordaintzari buruzkoa dena.

Decimoprimer.– La persona que ejerza la Dirección del Organismo Pagador y los/las Directores/as de las Diputaciones Forales competentes por razón de la materia se reunirán como mínimo una vez al año, con el fin de asegurar el correcto y eficaz cumplimiento del presente Convenio.

Decimosegunda.– La Diputación Foral de Álava, anualmente, al inicio del ejercicio presupuestario, confirmará al Organismo Pagador que cumple con las actividades que tiene delegadas y remitirá un informe sobre las desarrolladas en el ejercicio presupuestario anterior, en el que se describirán, así mismo, su estructura organizativa y los medios personales y materiales utilizados para tal fin.

Decimotercera.– El Organismo Pagador examinará periódicamente las actividades delegadas para confirmar que el trabajo delegado se realiza satisfactoriamente y de conformidad con la normativa de la Unión.

Decimocuarta.–

1.– El presente convenio tendrá una vigencia de cuatro años, contados a partir del día de su firma. En cualquier momento antes de la finalización del plazo anterior, las partes firmantes podrán acordar su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

2.– El Convenio podrá ser denunciado por las por escrito por cualquiera de las partes firmantes con la antelación mínima de un mes.

3.– A la entrada en vigor del presente Convenio, quedará sin efecto el Convenio de Colaboración entre el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Álava, relativo a la gestión y pago de las ayudas directas y medidas de Desarrollo Rural financiadas con cargo a los fondos europeos FEAGA y FEADER, suscrito el día 10 de enero de 2007.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Hamabosgarrena.– Arabako Foru Aldundiko funtzionarioak erakunde ordaintzailekoekin batera arituko dira, eta denek lagunduko diete Europar Batasuneko funtzionarioei eskuordetutako jarduerak kontrolatzeko eta egiaztatzeko bisitaldietan. Arabako Foru Aldundiak bisitaldien garapenaren berri izango du une oro, bai eta horien fase ezberdinak ondorioen berri ere.

Hamaseigarrena.– Hitzarmen hau administratiboa da, interpretatzeko, aldatzeko eta beste edozerarako ahalmenari dagokionez, horrek dakartzan ondorioekin, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du indarrean dagoen bitartean hitzarmena aplikatzerakoan sortzen diren gatazkak ebazteko eskumena.

Hamazazpigarrena.– Hitzarmen hau bai Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, bai Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, bi aldeetako edozeinek hitzarmena azkentzen badu, aipatutako aldizkari ofizialetan emango da horren berri, hamalagarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Eta bi alderdiak bat datozela eta adierazitako guztia onartzen dutela erakusteko, hitzarmen hau izenpetzen dute, bi aletan, izenburuan esandako tokian eta egunean.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX(e)ko sailburua

XXXXXXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX(e)ko ahaliduna

Decimoquinta.– Personal funcionario de la Diputación Foral de Álava estará presente y acompañará, junto con el personal funcionario del Organismo Pagador, al personal funcionario de la Unión Europea en las misiones de control y verificación de las actividades objeto de delegación. La Diputación Foral de Álava se encontrará en todo momento informada del desarrollo de las misiones, así como de las conclusiones de las mismas en sus diferentes fases.

Decimosexta.– El Convenio tiene naturaleza administrativa, con todas las consecuencias que de ello se derivan en cuanto a las facultades de interpretación, modificación y otras, siendo competente la Jurisdicción Contencioso-Administrativa para el conocimiento de las controversias que se produzcan en su aplicación durante su vigencia.

Decimoséptima.– El texto del presente Convenio será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, así como en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava. Así mismo será publicado en dichos diarios oficiales la denuncia, que en su caso y conforme a lo dispuesto en la Cláusula Decimocuarta, efectúe cualquiera de las partes.

Y en prueba de conformidad y aceptación con cuanto queda expresado firman el presente documento, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

XXXXXXXXXXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

El Diputado de Foral de Agricultura

Eduardo Aguinaco López de Suso